

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Esteban Elorza Aranburu

*Hernani,
Gipuzkoa
(1928)*

Aurkibidea



Biografia



Hernaniko Fagollagako Arbelaizenea baserrian jaio zen. Zortzi senide ziren; bost arreba eta 3 anai. Bera 2.a zen. 9 urte zituela morroi joan zen Hernaniko Portu auzoko Lonjara. Bere lana, batez ere, enkarguak egitea izaten zen. 13 urterekin tifusarekin gaixotu zen eta gogoan du etxetik atera gabe denbora luzean egon zela. Ereñozuko Txilibita baserrira bere osabari laguntzera joaten zen eta bertako alabarekin ezkondu zen gero. 40 urte egin zituen plastiko fabrika lanean.

Zintak

HER-009

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2009-11-19
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Pilotako apretak eta morroi-lanak umetatik

- **Erref:** HER-009/002
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:03:03. **Bukatu:** 00:04:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Pilotara jokatzeari gustatzen zitzaizkion; apretak erabiltzen zituzten, baina puskatzen zituztenean, moldatzen ziren berriro erabili ahal izateko. 9 urte zituela morroi joan zen eta 4 urte eman zituen han lanean. Amonari laguntzen ibiltzen zen orduan.

2. Tifusak eta perretxikoek denbora gutxian familia osoa gaixotu

- **Erref:** HER-009/003
- **Iraupena:** 0:04:47. **Hasi:** 00:04:18. **Bukatu:** 00:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

4 urte eman zituen morroi-lanetan eta etxera itzuli zenean, familia osoa arreba bat ezik tifusarekin gaixo zegoen. Lehen pneumonia harrapatuz gero, ez zuten urik edaten; medikuntza asko hobetu da ordutik. Tifusa harrapatu aurretik, perretxikoak jateagatik oso gaixo egon ziren bere familian. Mediku batek hiltzat eman zuen Esteban; baina geroago beste mediku bati deitu zioten, eta hark "Insalus" ura eta olioia edateko esan zien. Eskapada handia izan zen hura.

3. Arreben eta aitaren lanbideak familia aurrera ateratzeko

- **Erref:** HER-009/005
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Aitona-amonak beraiekin bizi ziren baserrian. Arrebak etxean aritzen ziren lanean paper-fabrikarako. Aitak porlan-fabrikan egiten zuen lan.</p>

4. Lehen ez zen hobeto bizi

- **Erref:** HER-009/006
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:13:08. **Bukatu:** 00:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lehengo bizimoduari buruzko usteak okerrak direla uste du. Janaria merkeagoa izanda ere, diru gutxiago zegoen hura erosteko. Orduko prezioak aipatzen ditu. Beraiek errentan bizi ziren, eta hura ordaintzeko ere dirua behar izaten zen.

5. Eskolan egurra moztu eta euskarazko liburuak erretzeko agindu guardia zibilak

- **Erref:** HER-009/009

- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:16:14. **Bukatu:** 00:17:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Politika » Euskara eta politika
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

<p>Eskolan egurra mozten aritzen ziren eskolarako eta maistrarentzat. Hasiera batean euskarazko liburuak erabiltzen zituzten dotrinarako, baina guardia zibilak etorri eta liburu haiek denak erre zituzten. Orduan gaztelaniazko liburuak erabiltzen hasi ziren.</p>

6. Eskolako materiala eta gau-eskolako gaiztakeriak

- **Erref:** HER-009/011
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:19:29. **Bukatu:** 00:22:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Eskolara liburuak eramateko, amak poltsa egiten zien. Poltsa hartan liburuak eta arkatza eramaten zituzten. Eskola bukatu eta gero, gau-eskolan ibili zen. Hango maistrak txakur zuri bat zuen, "Blantxi"; behin mutil batek zakurra tintarekin pintatu zuen.</p>

7. Fabrikan ikasteko aukera bai, baina gogorik ez

- **Erref:** HER-009/013
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:22:51. **Bukatu:** 00:24:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Gau-eskolara iluntzean joaten ziren bi orduz. Fabrikan ikasteko aukera izan zuen, baina gogorik ez.</p>

8. Ezkonbizitzarako prestatzen

- **Erref:** HER-009/015
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:24:51. **Bukatu:** 00:26:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ezkundu nahi zuten, baina dirurik ez zuten. Lehen fabrian irabazitako diru guztia amari ematen zion, eta hortik kanpo lortutakoa izaten zen beretzat. Diru pixka bat bildutakoan, logela erostera joan ziren emaztea eta izeba.

9. Franco etorri zenean, ate nagusitik ziegara

- **Erref:** HER-009/020
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:31:53. **Bukatu:** 00:35:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Soldadu zegoela, behin Franco etorri zen eta ate nagusian egotea tokatu zitzaion; azkenean, ordea, ziegan egon behar izan zuen Franco joan bitartean.</p>

10. Alferezaren laguna izateagatik, ziegatik mesede eske

- **Erref:** HER-009/022
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:39:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Behin alferezarekin guardia egitea tokatu zitzaionekoan kontatzen du: ziegan zegoen mutil batek, Esteban alferezaren laguna zela baliatuta, patiora irteten laguntzeko eskatu zion. Azkenean, atera bai, baina bazterrak nahasi zituen.</p>

11. Soldadutzan tiroan eta aisialdian ehizan

- **Erref:** HER-009/024
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:41:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>22 hilabete egon zen soldadutzan. Egunero etxean egoten zen, bizikletaz joaten zen "soldadutzara" tiroak egiteko entrenatzera. Ehizarako zaletasuna

izan du beti. Lehen usoak, oilagorrak, basurdeak... harrapatzen zituzten ehizan. Lehen orain baino balio handiagoa zuen zenbait animalia harrapatzeak.</p>

12. Errekako arrantza eta guardaren zori txarra

- **Erref:** HER-009/025
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:41:57. **Bukatu:** 00:43:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Arrantzan asko ibilitakoa da Esteban, errekan gehienbat. Behin, arrantzako arauak betearazten aritzen zen guarda hil egin zuten Añarbe ibaian.

13. Arrain ikaragarria harrapatu zuenekoa

- **Erref:** HER-009/027
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:44:42. **Bukatu:** 00:48:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Esteban kanaberarekin aritzen zen arrantzan. Esku-arrantzan aritzeak beldurra ematen zion. Behin amuarrain ikaragarria harrapatu zuenekoa kontatzen du.

14. Arrainen gustuko amuak jakin bai, baina askoz amuarrain gutxiago gaur egun

- **Erref:** HER-009/028
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:48:20. **Bukatu:** 00:50:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Arrantzarako kanabera, amua eta pita erabiltzen zuen. Amuan zizarea eta gazta jartzen zuen. Lehen orain baino askoz amuarrain gehiago zegoen. Araztegiek hobetu dute uraren kalitatea, baina hala ere, uholdeak direnean, fabrikek zikinkeria guztia botatzeko aprobetxatzen omen dute.

15. Ibaian neska itotzear zegoela atera zuenekoa

- **Erref:** HER-009/030

- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:50:32. **Bukatu:** 00:54:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Lehen ibaian bainatzen ziren. Behin neska bat atera zuen uretatik itotzear zegoela; atera zuenean konortarik gabe zegoen, baina lortu zuten neska hura bere onera ekartzea.

16. Mendian kanpin-dendan lo ezin egin

- **Erref:** HER-009/035
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:57:50. **Bukatu:** 01:02:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Behin, gaztea zenean, Berastegira joan zen bi lagunekin; bidean kanpin-denda jarri zuten, baina gizon batek ez zien utzi han gelditzen. Lagunak orduan mando bila joan ziren herrira, beste mendira pasa ahal izateko. Handik urte askotara, mendian lo egiten utzi ez zien gizona ezagutu zuen Estebanek.

17. Telefonoa pixkanaka sartu herrian

- **Erref:** HER-009/036
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:02:05. **Bukatu:** 01:03:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Lehen ez zegoen telefonorik. Inguruko lehenengo telefonoa apaizak jarri zuen; hurrengo taxi-gidariak... Ganadua izateagatik berari diru-laguntza eman zioten telefonoa jartzeko.

18. Odolkiaren usaina bai, baina odolkia non?

- **Erref:** HER-009/039
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:05:06. **Bukatu:** 01:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

"Potajes al da?" istorioa kontatzen du. Hamaiketakoan potajeak zeuden jateko, baina odolkirik ez, lehenago jana baitzuen sukaldariak. Amona eta aitona igandetan gaztaina erreak saltzen aritzen ziren elizaren sarreran, eta bukatutakoan pieza bat dantzatu eta kantatzen zuten.

19. Txilibitako giro ona

- **Erref:** HER-009/042
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:07:47. **Bukatu:** 01:09:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Oiartzun aldetik ere etortzen zen jendea mezara hanka hutsik eta gero tabernara. Jende asko egoten zen tabernan. Baserriaren egoerak kezkatu egiten zuen Esteban, erori egingo zen beldurra baitzuen. Giro ona egoten zen Txilibitan: soinu-jotzaileak eta dantza.

20. Gerra nola bizi izan zuten

- **Erref:** HER-009/044
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 01:10:48. **Bukatu:** 01:14:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerran gosea pasa zuten. Gerra hasi zenean, tankeak etorri ziren, aita harrapatu zuten eta beraiekin batera eraman zuten, baina ilunabarrerako askatu zuten. Errepideak moztu egin zituzten. Etxetik ez ziren irteten gerra garaian. Hernanin izandako fusilamendu bati buruz hitz egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com